



ikasturte hasiera apertura curso **2009/2010**



**2008-2009ko  
MEMORIA AKADEMIKOA  
ESKORIATZAN, 2009KO IRAILAREN 23AN**

**MEMORIA ACADÉMICA  
2008-2009  
ESKORIATZA, 23 DE SEPTIEMBRE DE 2009**

## **EMANDAKO IKASKETAK ETA MATRIKULATUTAKO IKASLE KOPURUA**

Joan den ikasturtean, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK bere titulazio gehienak Goi Hezkuntzako Europar Eremura egokituta eskaini ditu jadanik, eta eskaintza hori egin duen lehen euskal unibertsitatea izan da. Esparru teknikoan, Goi Eskola Politeknikoak Ingeniaritzako 5 GRADU eman ditu, eta bigarren zikloko 5 titulazio ere bai. Enpresa Zientzien Fakultatea ere aitzindaria izanda aipatutako egokitzapenetan. Ildo horretan, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza GRADUA eskaini du; horretaz gain, lizentziaturaren bigarren zikloa eta zuzendaritz-aizkaritzako tituluak ere eskaini ditu. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, bestalde, hezkuntzaren eta ikus-entzunezko komunikazioaren eremuko 8 titulazio eman ditu.

2008-2009 ikasturtean zehar gainerako titulazioak egokitzen jardun ondoren, gaur hasiera emango diogun ikasturtean gure titulazio guztiak europar egitura berriarekin bat etorriko dira. Gainera, azpimarratzeko da titulazio zeharo berritzaile bat jarri dugula abian: "Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua".

MONDRAGON UNIBERTSITATEAk, era berean, gero eta diplomatura bikoitz gehiago eskaini ditu aukeran, eta gaur egun 6 dira jadanik, guztiak ingeniaritzen alorrekoak eta unibertsitate frantsesekin elkarlanean garatutakoak.

Graduondoko eskaintzari dagokionez, 2008-2009 ikasturtean 2 ikastaro berriri eman diegu sarbidea, eta hainbat titulu berri diseinatu ditugu, aurtengo ikasturtean abian jartzeko asmoz. Titulu berri horien artean, Enpresa Berrikuntzako eta Proiektu Zuzendaritzako Unibertsitate Master berria nabarmentzen da. Horrela, gure graduondoko titulu propio nahiz ofizialak 24 dira, eta horiei etengabeko prestakuntza-ikastaroen eskaintza ugaria gehitzen badiegu, 20.000 prestakuntza-ordu baino gehiago eman ditugu guztira.

Matrikulei dagokienez, 2008-2009 ikasturtean, 3.494 ikasle matrikulatu dira: 3.099 gradu-tituluetan, eta 395 graduondokoetan eta hirugarren zikloan. Azken honetan, nabarmendu nahi nuke 149 ikasle izan direla MONDRAGON UNIBERTSITATEko doktorego-programetan matrikulatutakoak, iezko ikasturtean baino %13 gehiago.

Nazioarteko eremuan ere, gero eta gehiago dira praktikak eta karrera amaierako proiektuak atzerriko unibertsitateetan edota enpresetan egiten dituzten ikasleak. Aurreko ikasturtean 194 ikasle joan ziren atzerrira, hau da, iez baino baino % 22 gehiago.

## **ESTUDIOS IMPARTIDOS Y ALUMNADO MATRICULADO**

Durante este curso pasado, MONDRAGON UNIBERTSITATEA ha sido la primera universidad vasca en ofrecer gran parte de sus titulaciones adaptadas al Modelo Europeo de Educación Superior. En el ámbito técnico, la Escuela Politécnica Superior ha impartido 5 GRADOS en Ingeniería, así como 5 titulaciones de segundo ciclo. La Facultad de Ciencias Empresariales, también ha sido pionera en su adaptación, con la oferta de su GRADO en Administración y Dirección de Empresas, además de ofrecer el segundo ciclo de la licenciatura y el título de secretariado de dirección, y por su parte, la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación ha contado con 8 titulaciones del ámbito de la educación y la comunicación audiovisual.

Asimismo, durante el curso 2008-2009 se ha trabajado en la adaptación del resto de titulaciones, lo que ha permitido la implantación, en el curso que hoy inauguramos, de la totalidad de nuestras titulaciones adaptadas a la nueva estructura europea. Además, cabe resaltar la puesta en marcha de una titulación totalmente novedosa denominada "Grado en Liderazgo Emprendedor e Innovación".

También son cada vez más las dobles diplomaturas que ofrece MONDRAGON UNIBERTSITATEA, 6 en la actualidad, todas ellas en colaboración con universidades francesas, en el campo de las ingenierías.

En cuanto a la oferta de postgrado, en el curso 2008-2009 se han implantado 2 nuevos cursos y se ha trabajado en el diseño de nuevos títulos para su puesta en marcha durante el presente curso, entre los que cabe destacar el nuevo Master Universitario en Innovación Empresarial y Dirección de Proyectos. Con todo, suman 24 los títulos oficiales y propios de posgrado, que junto a la amplia oferta de cursos de formación continua, han supuesto más de 20.000 horas de formación.

En lo que a matriculaciones respecta, han sido 3.494 los alumnos matriculados en el curso 2008-2009: 3.099 en títulos de grado, y 395 en postgrado y tercer ciclo, de entre los cuales, cabe destacar, con 149 alumnos, en incremento del 13% experimentado en el número de matriculados en programas de doctorado de MONDRAGON UNIBERTSITATEA.

En el ámbito internacional, también son cada vez más los alumnos que realizan prácticas y proyectos fin de carrera en universidades y/o empresas del extranjero; durante el curso pasado fueron un total de 194 alumnos, lo que ha supuesto un incremento del 22%

## IKERKETA ETA GARAPENA

I+G alorreko jardueretan, MONDRAGON UNIBERTSITATEA ez da mugatzen ezagutza berriak sortzera, haratago heldu nahi baitu. Izen ere, aplikagarritasuna du helburu, kasuan kasuko eremuan, karreren bidez jorratutako prestakuntzan, eta hala eskatzen dioten erakunde eta enpresei ematen dizkien berrikuntza-zerbitzuetan. Hitz batean, gure unibertsitatearen iritziz, bertako hiru jarduerak (irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia) uztartzea da, ezbairik gabe, irakaskuntzaren kalitatea handitzeko eta dagokigun konpromiso soziala mamitzeko modurik eraginkorrena.

Gure elkarlaneko ikerketa-ereduari lotutako printzipioek oinarri jakin bat dute: ikerketa eta partaidetza bateratzea. Partaidetza, gainera, funtsezko hiru eragileren arteko lankidetzaren bidez mamitzen da. Unibertsitatea, Teknologia Zentroak eta enpresak dira hiru eragile horiek. Aipatu ditudan bi alderdiak bateratuz, masa kritiko ikertzailea sortzen da, ezinbestekoa baita bikaintasunezko ikerkuntzatarako, eta, era berean, unibertsitatea eta enpreza are gehiago hurbiltzen dira. Ildo horretan, jakinekoa da unibertsitatea eta enpreza funtsezko ardatzak direla berrikuntza sustatzeko, eta etorkizuneko ikertzaileak trebatzeko, enpreza eta teknologia-zentroetan jardun dezaten.

Hizpide izan dudan filosofiarri atxikita, 2008-2009 ikasturtean zehar, MONDRAGON UNIBERTSITATEAk ikerkuntza-jarduerak sustatzen jarraitu du bere 10 ikerketa-ildotan. Ondorioz, irakasleek I+G+i alorrari eskainitako batez besteko dedikazioa % 35 ingurukoa izan da.

Gure Unibertsitateak proiektu ugaritan hartu du parte, nola MONDRAGON Korporazioaren Zientzia eta Teknologia Planaren baitan, hala Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren programen bidez, eta baita estatuko eta Europako hainbat deialditan ere.

Ikerketa-lan horren funtsezko xedea zientzia-ikerketa eta ikerketa aplikatua sustatzea izan da, baina, horrez gain, hirugarren zikloari ere bultzada handia eman zaio, 21 doktorego-tesi berri burutu baitira, alegia, aurreko ikasturteko kopuruaren halako bi. Gainera, lehen adierazi dudan bezala, doktoregaien kopuruak ere gora egin du.

Bestalde, 100 artikulu inguru argitaratu ditugu aldizkari espezializatuetan, eta estatuko eta nazioarteko 89 biltzarretan aurkeztu ditugu txostenak. Gure Unibertsitateak, era berean, hainbat ezagutza-eremuri buruzko 16 biltzar antolatu ditu 2008-2009 ikasturtean zehar.

## BERRIKUNTZA ETA EKINTZAILETZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ekintzailetzaren aldeko apustua egin du, ikasleei emandako prestakuntzaren bidez

## INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO

La actividad de I+D en MONDRAGON UNIBERTSITATEA pretende ir más allá de la generación de nuevo conocimiento, ya que persigue la aplicabilidad en el área o campo de destino, en la formación en las carreras que imparte y en los servicios de innovación que presta a las organizaciones y empresas que lo solicitan. En definitiva, la universidad entiende que la integración de sus tres actividades, la enseñanza, la investigación y la transferencia constituye la forma más eficaz de incrementar la calidad de su enseñanza y cumplir con su compromiso social.

Nuestro modelo de investigación colaborativa asienta sus principios en el alineamiento de la investigación, con la participación en colaboración de los tres agentes clave: la Universidad, los Centros Tecnológicos y las empresas. Este alineamiento propicia la creación de una masa crítica investigadora, necesaria para el desarrollo de una investigación excelente, así como un mayor acercamiento universidad-empresa, factores clave si queremos potenciar la innovación y la capacitación de futuros investigadores.

Con esta filosofía, y durante el curso 2008-2009, MONDRAGON UNIBERTSITATEA ha seguido potenciando su actividad investigadora en sus 10 líneas de investigación y ello ha supuesto una dedicación media del profesorado a I+D+i de en torno al 35%.

Han sido muchos los proyectos en los que la Universidad ha participado, enmarcados en el Plan de Ciencia y Tecnología de la Corporación MONDRAGON , en los programas del Gobierno Vasco, en los de la Diputación Foral de Gipuzkoa y en convocatorias a nivel de Estado y de Europa.

Toda esta actividad investigadora, ha supuesto también el impulso del tercer ciclo, con la realización de 21 nuevas tesis doctorales, el doble que el curso anterior, y el incremento de doctorandos anteriormente señalado.

Asimismo, se han publicado en torno a 100 artículos en revistas especializadas y se han presentado ponencias en 89 congresos tanto a nivel estatal como internacional. Por su parte, la Universidad ha organizado durante el curso 2008-2009 16 congresos sobre distintos ámbitos de conocimiento.

## INNOVACIÓN Y EMPRENDIZAJE

MONDRAGON UNIBERTSITATEA apuesta por el emprendizaje como una fórmula para ir más allá de la formación que

urretiago iristeko. Helburu hori lortzeko nahiak eraginda, duela 3 urte MONDRAGON EKITEN izeneko plan integrala jarri genuen abian, ikasle eta irakasleen artean ekintzaileta sustatzeko eta, horrela, empresa-proiektuak bultzatuz, enplegua sortzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.

Bestalde, MONDRAGON EKITEN ekimenaren bidez, besteak beste, ekintzaileta sustatzeko Topaketa eta Enpresa Ideia Berrien Lehiaketa antolatzen dira urtero.

III. Topaketan, MUko 300 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte, eta, ondorioz, partaidezak % 50etik gorako hazkundea izan du, II. topaketako datuekin alderatuta. Aurten, gainera, Debagoineneko eta Debabarreneneko landa-garapenerako agentziekin elkarlanean, enpresa-ideia berrien lehiaketari beste modalitate bat erantsi diote: landa-garapen jasangarriko proiektuena, alegia.

Era berean, abenduan eta apirilean, gure Unibertsitateak "Ametsen Ekaitza" izeneko bi jardunaldi antolatu zituen Finlandiako 'Team Academy' ekintzaileta-unitatearekin batera. Gazteen artean ekintzaileta sustatzea izan zen bi jardunaldien helburua, eta berebiziko arrakasta lortu zuten, 350 eta 500 ikasle euskaldunek hartu baitzuten parte, hurrenez hurren. Estatuan antolatu den horrelako lehen ekimena izan da. 'Team Academy' metodologia oinarri hartuta, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren alorreko nazioarteko aditurik handienak izan ziren bertan.

Azkenik, lehen adierazi dudan moduan, aurtengo ikasturtean titulazio berri bat hasiko gara eskaintzen: Lidero Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua. Berrikuntzaren alorra indartzea eta ikasleen artean espíritu ekintzailea sustatzea izango ditu helburu.

## BESTE PROIEKTU ESTRATEGIKO BATZUK

### **Basque Culinary Center**

2008-2009 ikasturtean zehar, Basque Culinary Center proiektua ekinean hasi da jadanik, 2009ko martxoan ofizialki abiarazi ondoren. Unibertsitateak sustatu du, beste eragile instituzional eta sozial batzuekin elkarlanean, eta horietako batzuk aipatuko dizkizuet: Donostiako Udal, Gipuzkoako Foru Aldundia, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, eta izen handiko 7 sukaldari euskaldun.

Basque Culinary Center proiektuak bi euskarri handi izango ditu: Gastronomía Zientzien Falkultatea eta Gastronomía Zientzietai Ikertzea eta Berritzeko Zentroa. Biek ere 2011ko irailean irekiko dituzte ateak.

imparte a los alumnos. Por eso, hace 3 años pusimos en marcha un plan integral al que hemos denominado MONDRAGON EKITEN, para impulsar el emprendizaje entre alumnos y profesores con el objetivo de generar empleo y mejorar la competitividad mediante la promoción de proyectos empresariales.

Tanto el Encuentro para el fomento del emprendizaje organizado anualmente como el Concurso de Nuevas Ideas Empresariales forman parte de MONDRAGON EKITEN.

Han sido más de 300 los alumnos de MU participantes en el III Encuentro, un incremento superior al 50% con respecto a la II edición. Este año, además, y con la colaboración de las agencias de desarrollo rural del Alto y Bajo Deba, se ha incluido en el concurso de nuevas ideas emprendedoras una nueva modalidad para proyectos de desarrollo rural sostenible.

Asimismo, en diciembre y en abril, la Universidad organizó, junto con la unidad de emprendizaje finlandesa 'Team Academy', dos jornadas bajo el título "Ametsen Ekaitza", orientadas a impulsar el emprendizaje entre los jóvenes. Ambas jornadas supusieron todo un éxito con la participación de 350 y 500 estudiantes vascos respectivamente, tratándose del primer evento de estas características que se celebra en el Estado utilizando la metodología de 'Team Academy', los mayores expertos a nivel internacional en materia de innovación y emprendizaje.

Por último, y como se ha señalado anteriormente, el presente curso comienza a impartirse la nueva titulación de Grado en Liderazgo Emprendedor e Innovación, totalmente orientado a la innovación y al fomento del espíritu emprendedor en el alumno.

## OTROS PROYECTOS ESTRATÉGICOS

### **Basque Culinary Center**

Durante el curso 2008-2009 ha visto su luz el proyecto Basque Culinary Center, con su constitución oficial en marzo de 2009. El proyecto ha sido promovido por la universidad, junto con otros agentes institucionales y sociales, entre los que se encuentran el Ayuntamiento de Donostia, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco, el Ministerio de Ciencia e Innovación y 7 cocineros vascos de reconocido prestigio.

Basque Culinary Center contará con dos grandes pilares: la Facultad de Ciencias Gastronómicas y el Centro de Investigación e Innovación en Ciencias gastronómicas, que abrirán sus puertas en septiembre de 2011.

## Enpresa Zientzien Fakultateko campus berria

2008-2009 ikasturtean zehar, Enpresa Zientzien Fakultateko campus berria eraikitzeko lanei ekin zaie. Oñatiako Unibertsitate eta Teknologia Hiri berrian egongo da, eta 2010eko irailean hasiko da jardunean, hau da, Fakultatearen sorreren 50. urteurrenean. Campus berrian, bi esparru jorratuko dira: batetik, enpresa-kudeaketari buruzko graduoko eta graduondoko prestakuntza, eta, bestetik, kudeaketa aurreratuaren alorreko ikerketa-jarduerak. Ildo horretan, aipatzeko da ikerketa-jarduerak Unibertsitatea eta MIK ikerketa-zentroa garatzen ari diren baterako proiekutan oinarrituko direla.

## Elektronika eta Sistema Txertatuen Ikerkuntza eta Berrikuntza Zentroa

Joan den ikasturtean, Elektronika eta Sistema Txertatuen Ikerkuntza eta Berrikuntza Zentroaren eraikin berria egiten hasi ziren. Energiari aplikatutako elektronikaren eta sistema txertatuen alorrean erreferentiazko ikertzale-taldea eta teknologia-transferentziako ekipoa sortzea da helburu nagusia.

## Ingeniaritzako eraikin berria Goierriko campusean

Bestalde, Goierriko campusean ingeniaritzako eraikin berria inauguratuko dute aurki. Berrikuntza Gunean dago, eta, aurtengo ikasturtetik aurrera Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak hartuko ditu. Halaber, Lortek ikerketa-zentroaren kokalekua ere izango da. Loturazko teknologietan espezializatuta dagoen Euskal Herriko ikerketa-zentro bakarra da Lortek, eta, elkarlanaren bidea urratuz, inguruko enpresek loturazko teknologien alorrean dituzten beharrei erantzun nahi izan diote Unibertsitateak eta Goierri Fundazioak.

## ZUZENEKO LOTURA ENPRESEKIN

Enpresa-hunarekiko zuzeneko lotura MONDRAGON UNIBERTSITATEaren ezaugarri nagusietakoa izan da hasieratik, eta ezaugarri hori hainbat modutan azaleratu eta mamitu da:

- Unibertsitateak eta enpresek elkarlanean egindako ikerketa-proiekturen bidez.
- Enpresei unibertsitateko kudeaketa-organoetan parte hartzeko aukera emanez.
- Unibertsitateak lan-munduko profesionalei eskaintako etengabeko prestakuntzaren bidez.
- Karrera amaierako proiektuak unibertsitatearen eta enpresen artean zehaztuz.

Enpresekiko harreman estuari esker, unibertsitateak berehala eta etengabe jakiten du zer premia eta eskari dituzten.

## Nuevo campus de la Facultad de Ciencias Empresariales

Asimismo, durante el curso 2008-2009 se han iniciado las obras del nuevo campus de la Facultad de Ciencias Empresariales que se ubicará en la nueva Ciudad Universitaria y Tecnológica de Oñati y que estará operativo en septiembre de 2010, coincidiendo con la celebración del 50 aniversario de la creación de dicha Facultad. Esta infraestructura abarcará dos ámbitos: por un lado, la formación en el área de la gestión empresarial, tanto de grado como de posgrado, y la actividad de investigación en gestión avanzada, basada en el proyecto común que se está desarrollando con el centro de investigación MIK.

## Centro de investigación e innovación tecnológica en electrónica y sistemas empotrados

Durante el pasado curso también dieron comienzo las obras del nuevo edificio que albergará el Centro de Investigación e Innovación Tecnológica en Electrónica y Sistemas Empotrados de la Escuela Politécnica Superior. Su objetivo es desarrollar un equipo investigador y de transferencia tecnológica referente en el mundo de la electrónica aplicada a la energía y los sistemas empotrados.

## Nuevo edificio de ingeniería en el campus de Goierri

Por otra parte, próximamente será inaugurado en el campus de Goierri el nuevo edificio de ingeniería situado en el Polo de Innovación, que a partir de este curso acogerá a los alumnos de la Escuela Politécnica Superior de MONDRAGON UNIBERTSITATEA y a Lortek, centro de investigación especializado en tecnologías de unión, pionero en todo el País Vasco y con cuya colaboración la Universidad y la Fundación Goierri pretenden responder a las necesidades de las empresas del entorno en materia de tecnologías de unión.

## VINCULACIÓN DIRECTA CON LA EMPRESA

La relación directa con el tejido empresarial constituye una de las principales características de MONDRAGON UNIBERTSITATEA ya desde sus propios inicios, lo cual se materializa a través de diversos mecanismos:

- La realización de proyectos de investigación conjuntamente entre la universidad y las empresas.
- La participación de las empresas en los órganos de gestión de la universidad.
- La formación continua ofrecida por la universidad, orientada a los profesionales del mundo laboral.
- La intensa relación universidad-empresa en la definición de los proyectos fin de carrera

Esta relación con la empresa posibilita a la universidad un conocimiento inmediato y permanente de sus necesidades y demandas.

Gure ereduak enpresekin harremanetan jartzeko aukera ematen die ikasleei ere, unibertsitateko ikasketetan zehar lan-munduari buruzko ezagutza praktikoak eta errealk berengana ditzaten.

- Ildo horretan, ikasle guztiak praktikak eta karrera amaierako proiektuak egin ditzakete enpresa eta ikastetxeetan. Joan den ikasturtean 604 ikaslek egin dituzte, eta horietako 68 atzerrian aritu dira.
- Egun erdiz lan egiteko aukera ere eskaintzen zaie, ikasketak eta lana txandakatzeko: 400 ikasle baino gehiago dabilta horretan.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK enpresa, ikastetxe, kooperatiba-elkarreko eta bestelako erakunde askorekin ditu harremanak: 300 baino gehiago dira guztira. Eta harreman horiei esker eskaintzen dizkie ikasleei aipatu ditudan aukerak.

## **ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK**

Urtero bezala, kirol-jarduerak, osasun-alorrekoak eta lehiaketak antolatu ditugu, eta baita ekimen soziokulturalak ere, unibertsitateko ikasle eta langileentzat. Aurtengo ikasturtean, gainera, Euskadiko Unibertsitate Artekoko Kirol Txapelketa MONDRAGON UNIBERTSITATEAK antolatu du. Euskal Herriko 3 unibertsitateetako 380 ikaslek hartu dute parte.

## **UNIBERTSITATEAKO AURREKONTU BATERATUA ETA PERTSONALA**

Unibertsitatearen aurrekontu bateratua 40.379.000 eurokoa izan da. Unibertsitateko inbertsioen atalari dagokionez, kopuruak honako hauek izan dira:

- 2.294.000 euro ohiko inbertsioetan.
- 21.896.000 euro ezohiko inbertsioetan, batik bat Goi Eskola Politeknikoko eraikin berri eta Enpresa Zientzien Fakultateko campus berrian.

Unibertsitateko pertsonalari dagokionez, 2008-2009 ikasturtean zehar 432 langile eta 200 bekadun izan ditu. Bekadunak egun erdiz jardun dute.

La relación del alumno con la empresa durante su periodo de formación universitaria también forma parte de nuestro modelo, permitiéndole un aprendizaje práctico y conocimiento real del mundo laboral, a través de:

- Prácticas y Proyectos Fin de Carrera en empresas y centros educativos, realizados por todos los alumnos: el curso pasado han sido 604 alumnos, de los cuales 68 han realizado su proyecto en el extranjero.
- Trabajo a media jornada, alternando estudios y trabajo: fórmula elegida por más de 400 alumnos

Todo ello es posible gracias a la relación que MONDRAGON UNIBERTSITATEA tiene con más de 300 empresas, centros educativos y organizaciones tanto del ámbito cooperativo como del resto.

## **ACTIVIDADES EXTRAACADÉMICAS**

Como todos los años, se han impulsado actividades tanto deportivas, en el área de la promoción de la salud y en el área de competición, como socio-culturales, dirigidas al conjunto de alumnos y trabajadores de toda la universidad. Este curso, además, ha corrido a cargo de MONDRAGON UNIBERTSITATEA la organización del campeonato de Euskadi de Deporte Universitario, con la participación de 380 alumnos de las 3 universidades vascas.

## **PRESUPUESTO CONSOLIDADO Y PERSONAL DE LA UNIVERSIDAD**

El presupuesto consolidado de la Universidad ha ascendido a 40.379.000 de euros. El capítulo de inversiones para el conjunto de la Universidad ha supuesto:

- 2.294.000 euros en inversiones ordinarias
- 21.896.000 euros en inversiones extraordinarias, que corresponden en su mayor parte, al nuevo edificio de la Escuela Politécnica Superior y al nuevo campus de la Facultad de Ciencias Empresariales.

En cuanto al personal de la Universidad, durante el curso 2008-2009 ha estado constituido por 432 trabajadores y 200 becarios a media jornada.

# IREKITZE HITZALDIA LECCIÓN INAUGURAL INAUGURAL LECTURE

KOMUNIKAZIO IKASKETAK INTERNETEN GARAIAN:  
BEHARREZKO APUSTU BATEN OINARRIAK

ESTUDIAR COMUNICACIÓN EN LA ERA DE INTERNET:  
FUNDAMENTOS DE UNA APUESTA NECESARIA

STUDYING COMMUNICATION IN THE ERA OF THE  
INTERNET: FOUNDATIONS FOR A NECESSARY CHALLENGE

AITOR ZUBEROGOITIA ESPILLA  
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA (ESKORIATZA)

## 1. INTERNET: PAREKORIK EZ DAUKAN IRAULTZA?

XXI. mende hasiera honek bereizgaririk baldin badauka, Internetek gure egunerokotasunean habia egin izana da horietako bat. Hain ekarri du aldaketa handia Sareak non ezagutzaren eta komunikazioaren munduari ez ezik gizarte antolaketari eta ekonomiari berari ere eragin dien. Ez alferrik, Sare Gizarteaz edota Ezagutzaren Ekonomiaz mintzo dira egun adituak.

Nongura entzuten da egunotan inprimategiak edota Neolito garaiak ezarritako mugarrien parekoa jarri duela Internetek. Ez gara gu aldaketaren sakontasuna auzitan jarriko dugunak; haatik, ez genitzke gutxietsi behar XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran izan ziren asmakizunak; izan ere, zertzuk ez zituzten ekarri gerora XVIII. mendean asmaturiko baporemakinak eta hurrengoaren lehen erdian sorturiko telegrafoak: Morse kodea, trenbidearen hedapena, uhin elektromagnetikoak, telefonoa, elektrizitatea, irratia, argazki makina, zinematografoa, automobila, hegazkina...

XIX. mendean Mendebalde deritzogun esparru geografikoa populatu zuten bizilagunak ere, beraz, itzelezko iraultza baten lekuko izan ziren. Iraultza horrek, gainera, egungoak bezala, teknologiaz haragoko ondorioak utzi zituen: orduan ere astinaldi ederra hartu zuten ohiko ekoizpen-moduek, herrialdeen antolaketa-moldeek, merkataritza-sistemek eta tokian tokiko kulturek.

Giza Zientzien esparruan, esate baterako, Kopernikoren iraultzaren parekoa bizi izan zuten garai hartan: Karl Marxek, fatalismoak gaindituta, langileria bere etorkizunaren subjektu aktibo bihur zitekeela aldarrikatu zuen, eta, hori eginez, ateak zabaldu zizkion hurrengo mende guztia markatuko zuen aroari; Sigmund Freud, berriz, barnera begira jarri zen kanpora begira beharrean, eta inkontzientearen amildegirik ezkutuenetarako bidea erakutsi zigun; Friedrich Nietzschek, bestalde, ez kanpora ez barnera, hark gora begiratu zuen eta ez zuen Jainkorik ikusi; are gehiago, balizko Jainko guztien heriotza aldarrikatu zuen, bozkario betean aldarrikatu ere.

Hiru lagun horien garai berean bizi izan zen Charles Darwin ere. Gauza jakina da aurtengo urteurrena dela-eta hitzetik hortzera darabilgun zientzialaria buru-belarri ibili zela Galapagoetan eta Hego Ameriketako beste hainbat bazterretan, ziren eta ez ziren ugaztun eta fosilak ikertzen; jakina da, era berean, ikerketon ondorio izan zela hautespen naturalaren teoria. Jakina da, azkenik, teoria horrekin Darwinek artean pentsaezinak ziren ikuspegia bistaratuz zituela eta hankaz gora jarri zuela Mendebaldearen ordura arteko kosmogonia guztia. Baina utz dezagun orain Darwin bere lorategian, gustuko zuen moduan bertako zizareak aztertzen, geroago berarengana bueltatuko gara-eta.

Utz ditzagun, halaber, Giza Zientziak, eta gatozen teknologiaren esparrura. Harrigarria dirudien arren, posible da orduko eta egungo aldaketa teknologikoen arteko paralelismoak egitea; konparazio-lan horrek, gainera, gaur egungo mudantzaren irismena erlatibizatzen laguntzen du: egin kontu alor teknologikora mugatuta ere, XIX. mendeko aldaketen ondorioz mundua txikiago zitzaiela bat-batean tresna berrien laguntzaz beronen berri zuten bizilagun harrituei; are gehiago: aurkikuntza berriei esker (telefonoa, irratia...) bazegoen, ordura arte ez bezala, bazterrak korritu barik ere etxetik bertatik ludi zabaleria leihoa zabaltzea.

## 2. ... BAINA ERREZETA ZAHARREK EZ DIGUTE BALIO

En cualquier caso, una cosa es tomar un poco de distancia para obtener así una mejor perspectiva y poder relativizar un poco el curso de los acontecimientos (lo cual, dicho sea de paso, es una actividad muy saludable, ya que, al situar la irrupción de Internet en su contexto histórico, hace que nos demos cuenta del verdadero calado del cambio propiciado por la Red), y otra muy distinta el querer continuar, una vez realizado ese ejercicio intelectual, con recetas elaboradas para funcionar en coyunturas históricas muy distintas a la actual.

Evidentemente, no vamos a descubrir el Mediterráneo si sostenemos que, aun relativizando el alcance del cambio, no sería muy inteligente afrontarlo utilizando estrategias y paradigmas ya caducos. La modernidad, el sueño de los ilustrados, caracterizado por la fe en la razón, en la ciencia y en las explicaciones globales, integrales de la realidad (marxismo, liberalismo y otra suerte de ismos), ha dado paso a la fragmentación de los pensamientos totalizadores, a las explicaciones parciales, al relativismo, a la reivindicación de la individualidad, a eso que se conoce como pensamiento líquido.

El cambio de paradigmas ideológicos ha venido acompañado (y en gran parte propiciado) por cambios en las coordenadas sociopolíticas, caracterizadas por el auge de la globalización, tanto en lo económico como en lo político, social y cultural.

Ciñéndonos a nuestro ámbito, el mundo de la educación afronta su adecuación a un nuevo tiempo, marcado por la implementación del Espacio Europeo de Educación Superior. Como indicaba José Antonio Alonso en un artículo publicado en enero de este mismo año bajo el título "Una universidad nueva", "el Espacio Europeo de Educación Superior es la oportunidad para que, sin dejar de tener los conocimientos imprescindibles de cada disciplina, no dediquemos todo el esfuerzo a memorizar y nos centremos en lo que un universitario necesita saber y saber hacer."<sup>1</sup> Huelga decir que todo ello nos obliga a reinventarnos como docentes y a dejar de lado de una vez por todas los esquemas decimonónicos, al menos si lo que se pretende es que el salto al nuevo marco suponga un avance pedagógico y no se limite a un mero cambio de nomenclatura:

- La propuesta pedagógica del Espacio Europeo de Educación Superior nos habla de un sistema basado en el aprendizaje autónomo del alumno, del cambio de rol del profesorado, de la discusión abierta entre alumnos y profesores y de pedagogías activas basadas en proyectos y en las discusiones de casos; nos habla también de la consolidación de la evaluación continua en detrimento de un modelo basado en el aprendizaje memorístico, en las clases magistrales y en los exámenes finales.
- Ha cambiado el escenario, y han cambiado también los alumnos. Internetekin hazitako belaunaldia da egungo unibertsitate-ikasleena. Iaz 1. mailan izan genituen gehienak, berbarako, 1990ean jaio ziren, Tim Berners-Lee ikertzaile ingelesak sarea asmatu zuenean, hau da, World Wide Web delakoa. Beraintzat Internet eguneroko ogia da, eta amaraunarekin batera hazi dira. Marc Prensky adituak "natibo digital" izendatu zituen gazte horiek, eta izen horrekin adierazi nahi du pertsona bat hazi dena teknología digitala erabiltzen, adibidez, ordenagailuak, Internet, eskuko telefonoak eta mp3a. Jatorriari dagokionez, beraz, argi dago Huheziko ikasleak erabat eskutik datozena teknología digitalarekin, baina zer gertatzen da erabilera kontuan hartuz gero? Hori jakiteko galdeketegia pasa zien iaz Joxe Aranzabal lankideak Ikus-entzunezko Komunikazioa lizenziako 1. mailako ikasleei. Hauak izan ziren galdeketaren emaitzak:
  - Sakelako telefonoa daukate: %100
  - Messenger darabilte: %100
  - Kontu bat dute Tuentin: %90
  - Fotolog bat dute: %63
  - Kontu bat dute Facebook-en: %36
  - Blog bat daukate: %9

Nicholas Negroponten being digital hura errealitate da, hortaz, hauen kasuan. Internet, sakelakoa, mp3a eta beste zenbait gailu eguneroko bidelagun izateaz gain, bideo-jokoetan trebatutakoak dira eta guk ez bezalako gaitasun kognitiboak garatu dituzte.

---

1) Alonso, J.A.: "Una universidad nueva", El País, 12-01-2009, p. 31

- Unibertsitate-irakaskuntza arautzen duen agertokia eta ikasleen tipologia ez ezik, hedabideen eta ikus-entzunezko sorkuntzaren ekosistema bera ere aldatu da, errrotik aldatu ere: aldatu dira kontsumo-moldeak, produkzio-moduak, komunikatzeko erak, jendearen ohiturak. Digitalizazioak audientziengatik zatikatze itzela ekarri du, hedabideak Interneten negozio-eredua ezin asmatuta dabilta, produkzio-etxeak sakelako telefonoetan ikusteko produktuak ekoizten hasi dira, telefono-konpainiak eurak ere telebistaren negozioan burua sartu nahian dabilta, nerabeek sare sozialen bitartez funtzionatzen dute... Masa-komunikazioaren paradigmatic informazioaren eta ezagutzaren gizarteko parigma berrirako trantsizio-prozesu betean gaude eta lauso daude oraindik bazterrak.

He ahí el terreno en el que nos debemos mover: un nuevo marco académico, un alumnado con un perfil marcadamente distinto y un panorama de medios y de empresas de creación audiovisual en plena transición, a la busca de un nuevo modelo. Ingurumaria erabat desberdina da, argi dago, duela urte batzuetakoarekin alderatuz gero. Gu geu ere komunikatzailailek heztekoko modua aldatu beharrean gara, ezinbestean.

Nondik ekin aldaketari? Europako Hezkuntzaren Goi Esparruak lehen aipaturiko bide batzuk markatu dizkigu dagoeneko: ikaslearen autonomian oinarrituriko ikaskuntza, ebaluazio jarraitua, pedagogia aktiboak... Irizpide pedagogikoak, beraz, argi antzean daude, baina, nondik jarraitu ondoren? Zertzuk alderdi lehenetsi? Non jarri indarra?

### **3. HAMAIIKA PUNTU AURRERA BEGIRATZEKO**

Miquel de Moragasek norabide argi bat markatua du: "En el nuevo contexto de la sociedad red", dio berak, "los estudios de comunicación deberán corregir este enfoque [arreta batez ere hedabideetan eta edukietan jartzea, eta ez informazioa transmititzeko prozesuetan eta teknologietan], prestando una mayor atención a la nueva centralidad de las telecomunicaciones, no solamente como canales de distribución, sino también como nuevos actores que condicionan la distribución pero también, y muy especialmente, la producción de contenidos."<sup>2</sup>

Esandako moduan, norabide argia da Moragasek markaturiko hori. Alabaina, arestian botatako itaunek hordiraute, temati asko: zertzuk alderdi lehenetsi behar dira unibertsitateko komunikazio-irakaskuntzan? Non jarri indarra? Dekalogo batekin nahiko ez nonbait eta hamaika puntu hartuko ditugu makulu modura itaunok erantzuteko. Hamaika askoren sinonimo da euskaraz. Ez dakigu asko diren, baina bai gure ustez funtsezko, segidan aipatuko ditugun puntuak. Y es que puestos a establecer prioridades, vamos a recurrir al artículo antes mencionado de José Antonio Alonso, en el que el autor citó los siguientes once puntos tratando de sintetizar en ellos lo que necesita saber y saber hacer un alumno una vez finalizado su periplo universitario:

- 1º debe saber leer
- 2º debe saber escribir
- 3º debe saber hablar
- 4º debe tener disciplina
- 5º debe tener una visión internacional
- 6º debe ser creativo
- 7º debe conocer las herramientas propias de su disciplina
- 8º debe estar alfabetizado en las nuevas tecnologías
- 9º debe tener una cultura general
- 10º romper con los decálogos, con las tradiciones estúpidas, con los criterios de rebaño, con el qué dirán y el me da lo mismo.
- 11º y último tiene que tener una visión ética.

---

2) Moragas, M.: "Las Facultades de Comunicación en el umbral de la era Internet" [en línea]: Chasqui. Revista Latinoamericana de Comunicación, número 72, 2000. [Consulta: 5 septiembre 2009]. <http://chasqui.comunica.org/moragas72.htm>

Estos once puntos nos ofrecen una base, un punto de partida. Vamos a diseccionarlos y a explicar cómo los entendemos en MONDRAGON UNIBERTSITATEA:

- The first three points (**knowing how to read, write and speak properly**) are fundamental for any self-respecting university degree. In our case, language is not just another tool for communicators, it's the tool par excellence for them, the foundation of thought and communication. That's the reason why we pay special attention to it: mainly in the first two years, with specific subjects to guarantee a solid basis for students in Basque, Spanish and English (evaluating transversely their language skills in the rest of subjects), but also in the following years, with some subjects taught in Spanish and English.

Notice that I've mentioned three languages, and that's because MONDRAGON UNIBERTSITATEA defines itself as a **multilingual university**. And notice as well that I've said that in the last two years of our degree some subjects are taught in Spanish and English. It means, obviously, that all the others are taught in Basque. That's one of our goals: to educate multilingual communicators using the Basque language as a vehicular language and guaranteeing the students a natural and permanent contact with the Spanish and English languages throughout the degree. Well rooted and open minds for an open world: that's an important point and we'll talk about it again when we refer to internationalization.

Planteamendu honetan frantsesa geratzen zaigu airean, bistan denez, baina hutsune hori konpontzekotan unibertsitate aurreko urteetatik abiatu behar delako errezeloa daukagunez, ez gara orain ur horietan sartuko.

- **Informazio eta Komunikazio Teknologiei (IKTei)** dagokienez, eta aro digitalean murgilduta gaudela, ezinbesteko da ikasleak garaiari dagozkion tresna eta baliabide guztiak baliatzea, hori izango duelako sare-gizartearen erosoa nabigatzeko bermerik onena. Horregatik hain zuzen, lehenengo mailatik bertatik ekin behar zaio alfabetatze digitalari, bai konpetentzia digital eta informaziozkoak landuz, bai web 2.0aren erreminta guztiak baliatuz.
- **Konpetentzia tekniko eta profesionalei** gagozkiela, ikasleek lehenengo mailatik ekin behar liekete **ikus-entzunezkoen alorreko lanabes eta tekniken ezagutza eta lanketari**. Hor ere lehentasunak markatu behar dira, argi dago. Irudi estatistikotik dinamikorako hurrenkerak markatu behar du gure ustez segida logikoaren ordena: argazkigintzatik, diseinuaren oinarriatik eta irudiaren lanketa digitaletik abiatu, bideo kamerarekin eta bideo edizioarekin segi eta errealizaziora, postproduktziora, animaziora, grafismora eta gisako arlo konplexuagoetara iritsi arte.
- Arestian aipaturiko trebetasun tekniko horiek gustura jorratu ohi dituzte ikasleek. Haatik, ikasleak **kultur oinarri sendoa** eduki behar duela ere aipatu dugu hamaika puntuak zerrendatzean, eta hori nekezago ulertu ohi dute batzuetan. Baino kontua da unibertsitateak ezer lortu behar badu, horixe erdietsi behar duela: **pentsatzeko metodo eta lanabesak** dituzten eta **irizpide propioz** jarduteko gai diren pertsonak, **pertsona kritikoak**. Alonsoren berbakin esateko, gente que sea capaz de **"romper con los decálogos, con las tradiciones estúpidas, con los criterios de rebaño, con el qué dirán y el me da lo mismo."** Moragas ere bat dator horrekin, unibertsitate-ikasketen azken xedea hau izan behar litzatekeela uste baitu:<sup>3</sup>

*"(...) adquirir una formación humanística y social que terminaría dándoles [ikasleei] la capacidad de aprender a saber, aprender a interpretar y aprender a comunicar. Éste debería ser el objetivo prioritario de la formación universitaria en comunicación. Hoy más que nunca, cuando algunas*

---

3) Op. cit.

técnicas, formatos y géneros de la comunicación cambian más rápidamente que la propia duración de los estudios universitarios.

*No hacerlo así sería suponer que la transformación de la comunicación es una cuestión únicamente de tecnologías y no una cuestión de cómo saber usarlas para la producción y distribución de contenidos.*

Bizitzaren arlo gehienetan modura, oreka-kontua ez ote den, horra errezeloa. Plano teorikoaren eta plano pragmatiko/teknikoen arteko oreka, alegría. Javier Davarak salatua du (2006: 278), horren harira, komunikazio-ikasketetan bi tentaldi maximalista izan daitezkeela: batetik, “el aventurado intento de entender las enseñanzas como algo cercano a las técnicas de formación profesional”; bestetik, “el no menos peligroso deseo de conformar unos estudios muy teóricos y discursivos alejados de la realidad.”<sup>4</sup>

Kontuak kontu, esaten ari ginen ezinbesteko dela ikasleak kultura orokorraren oinarrizko ikuspegia izatea. Hori lortu behar da perspektiba panoramiko zabala eskainita bai soslai profesionalarekin zuzen loturiko ikasgai espezifikoetan, bai ikasgai orokorragoetan. Akatsa litzatekeela, alegría, hiper-especializazioaren bidetik abiatu eta ikasgaiak eta ikus-entzunezkoen mundua bera euren ingurumaria naturaletik at erakustea, testuinguru barik eta diziplinen arteko loturak eta osagarritasun posibleak bilatzeari uko eginda.

Hizpide dugun kultura orokor sendoa, gainera, jakin-minaren berme da, eta bata zein bestea, berriz, beste premisa funtsezko baten oinarri: unibertsitateko ikasleak **sortzaile-sena** eduki behar du. Euskadiko Ikus-entzunezkoen Clusterrekoekin (EIKEN) edota mundu profesionalean dihardutenekin egoten garen bakoitzean lehen Moragasek aurreratu digun mezu hori jasotzen dugu: “Ondo dago trebakuntza teknikoa, ondo dago azken berrikuntza teknologikoen jakinaren gainean egotea”, esan ohi digute, “baina gakoa edukietan dago, eduki originalen sorkuntzan, eta etorkizunean ere hortxe izango dugu hutsune nagusia.” Esandako moduan, iritzi berekoa da Moragas bera ere. “Los cambios en el paradigma serán necesarios, sobre todo”, dio berak, “por la nueva centralidad de un factor clave en la comunicación del futuro: la producción de contenidos e, indirectamente, las formas de acceso y la mediación entre los usuarios y la nueva memoria digital. En estos aspectos se concentrará el poder, y también los desequilibrios, de la comunicación.”

Kalitatezko edukiak sortzeko, ordea, ez dago errezeta magikorik, ez dago aztimakilarik, baina bai sine qua non den baldintza bat: sortzaileak **kultur oinarri sendoa** izatea.

- Ikaslearen **diziplina** ere aipatu dugu hamaika puntuak izendatzean. XIX. mendeko errezeten baliagarritasun ezaz jardun dugu lehen, eta, horregatik beharbada, ez dugu lar gustuko berba horren oihartzun viktoriaarra. Edozelan ere, oso argi daukagu **ikasle arduratsuak** hezi behar ditugula: konpromisoak betetzen ohitu behar dira, eta ohitu behar dira, halaber, hitzarturiko epeak errespetatzen eta erantzukizunaren kulturan jarduten. Hori bermatze aldera, Unibertsitateak bideak eta foroak jarri behar dizkie ikasleei. Foro horiek garrantzi handikoak dira, are gehiago garai hauetan, non antolaketa kultura berrieik funtsezkotzat jotzen dituzten komunikazioa eta gardentasuna.
- Otro de los once puntos que venimos desgranando subraya la **Visión internacional**, algo de lo que siempre ha hecho gala el mundo académico y que se antoja elemento imprescindible en este mundo globalizado y caracterizado por las intersecciones entre

4) Davara, J: “La enseñanza universitaria del periodismo”, in XIII Jornadas Internacionales de Jóvenes Investigadores en Comunicación. Zaragoza: Universidad San Jorge, 2006, pp. 276-288.

comunidades y culturas. Es fundamental que los alumnos no pierdan de vista esa perspectiva, que conozcan de primera mano otros países, otras gentes, otras formas de concebir la realidad, para que valoren así en su justa medida su propia cosmogonía y enriquezcan esa cultura general, que, repetimos, es la base imprescindible sobre la que se asienta todo proceso de creación audiovisual.

Komeni da lehentxoago aipatu dugun leloa bergogoratzea, arlo honetan horixe baitugu ipar: well rooted and open minds for an open world. Komeni da, era berean, zehaztea, zer esan gura dugun well rooted diogunean: Miguel Torga portugaldarraren baieztapena gogora ekarri izan du inoiz Andu Lertxundik, alegia, unibertsaltasuna ez dela langarik gabeko partikularitasuna besterik. Lertxundik berak ondorioztatzen du gu geu izatea dela unibertsaltasunari egin diezaiokegun ekarpenik preziatuena. Inor gutxik jarriko du auzitan, konparazio baterako, García Márquez Macondoren edota Faulknerren Yoknapatawpharen unibertsaltasuna, bata zein bestea ezin geografia lokalagoak izan arren, batean zein bestean garaturiko tematikak ere euren eremuetan erabat sustraituta egon arren. Komunikazio mundura etorrira eta esaten ari garen guztiari loturik, argigarria da BBC Wales-eko Director for Nations and Regions Pat Loughreyk auzi honetaz dioena:

*"As new platforms and new opportunities become available, it is really important that we take advantage of them to ensure that the local democracy, local identity, local heritage and local language is nurtured and maintained, this is how you build your strength in the world –not by a form of cultural mid-Atlanticism, but by being strong in your indigenous identity and your indigenous experience, and having the self-confidence that comes with it. (...) It is that which seeks to appeal to everyone that tends to appeal to no-one."*

Garrantzitsu deritzogu ildo horri, ikuspegi horrek unibertsitatea bere inguruko gizartean ondo errotzen laguntzen duelako eta zentzia eta norabidea ematen dizkielako bere ikerketei, bere irakaskuntzari, bere jardun orokorrari. Well rooted, beraz, baina Koldo Mitxelenaren esaldi hura beti presente izanda (eta, honenbestez, open kontzeptuari egingo diogu erreferentzia): izan ere, errenteriar hizkuntzalariak zioen euskaldunon berezitasuna ez dela "europartasunaren hezurmamiei usain eta kolore berexi antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik".

- Last but no least, hemos dicho también que el alumno debe tener una **visión ética**, y lo creemos así por dos razones fundamentales:
  - Porque hablamos desde una universidad cooperativa, una universidad con una **marcada vocación social** que apuesta por el desarrollo de la sociedad a la que se debe.
  - Porque, en segundo lugar, formamos comunicadores, gente que desempeñará su labor en la esfera pública, gente que deberá trabajar con imágenes que pueden tener una evidente trascendencia o con declaraciones a menudo controvertidas, gente que se deberá enfrentar a polémicas de todo tipo, a presiones y a situaciones comprometidas. El conocimiento y la posterior interiorización del código deontológico de la profesión debe ser, por ello, el factor que les guíe en un mundo tan apasionante como complicado.

## 4. ZENBAIT BALIO ERANTSIA

Honaino hamaika puntu horiei dagozkienei azalpenak. Badira, alabaina, Komunikazioa ikasten diharduten ikasleentzat beharrezkotzat jotzen ditugun beste lau puntu:

1. **Lan mundutik gertu izatea.** Ezinbestekoa da, bai arlo profesionalean gertatzen ari denaren berri izateko, bai ikasleak apurka-apurka trebatzen eta mundu horretan barneratzen joan daitezen. Lau bide proposatzen ditugu hori bermatzeko:
  - a. Ikasleen derrigorrezko praktikaldia.
  - b. Gradu Amaierako Proiektua.
  - c. Lantzean behingo bilerak hedabideetako eta komunikazio enpresetako arduradun eta langileekin.
  - d. Profesionalen mintegiak antolatzea Unibertsitatean edota profesionalak eurak jartzea titulazioko ikasgai batzuetan irakasle, alderantzizko bideari ere uko egin barik: hau da, irakasleek ere aldian-aldian sartu-irtenak egin ditzatela mundu profesionalean.
2. **Working on Tri-Medial competences.** The slogan *One Content, All Media* mirrors the challenging working conditions for communicators in Europe: The digitalization of the production of media and the diversification of the publishing platforms have led to basic changes in the working situation of communicators. Content is produced only once and then exploited on distinct medial publishing platforms via digital technologies. That's the reason why the students of Communication should work on multi-medial competences to keep up with the rapid transformation in the media industry.
3. Estar capacitado para el **trabajo en equipo**. Es éste un pilar esencial de nuestro Grado en Comunicación Audiovisual, y lo es por tres razones de peso:
  - a. Por vocación, porque así lo queremos, porque somos una **cooperativa** y porque la cooperación y el trabajo en equipo son los pilares básicos sobre los que se sustenta nuestro proyecto. El título de Grado que nos ocupa, por poner un ejemplo, ha sido diseñado de esa manera: compartiendo materiales, metodologías, planteamientos pedagógicos y dudas entre los docentes, rehuyendo las torres de marfil y cooperando constantemente, buscando la complementariedad entre las materias y los módulos en aras a articular un producto coherente. Nos nutrimos de esa cultura y es esa cultura la que queremos transmitir a los alumnos.
